

ANDOAIN

- Zirkulazio nora-bide aldaketak

ADUNA

- Saharatik Adunara

ZIZURKIL

- Alkatearen dimisioa

ELKARRIZKETA

- Lurdes Muñoz eta Ane Legorburu

KULTURA

- Teresa del Valleren liburu berria
- Ernioko gurutzearen 50. urtemuga

1997ko irailaren 12a. 64. Zenbakia. 150 pezeta.

Aiurri

Beterri-Aiztondoko Aldizkaria



Sorginkeriak

BILLABONAKO EUSKALTEGIA

- TODOS LOS NIVELES DE EUSKALDUNIZACIÓN
- ALFABETATZE IKASTAROAK
- EGA
- HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK (PERFIL LINGÜÍSTICO)
- EUSKALDUNIZACIÓN PARA PADRES CON HIJOS EN EDAD ESCOLAR

- MINTZA PRAKTIKA
- EUSKARAZ IRAKURRI ETA IDAZTEKO IKASTAROAK
- MERKATARITZA (CURSOS DIRIGIDOS A COMERCIANTES)
- EKINTZAK
ASTEBURUETAKO IRTENALDIAK
DIAPOSITIBAK, FILMEAK, HITZALDIAK, TAILERRAK

Errebote plaza,
☎ 69 25 36


MATRIKULA EPEA: IRAILAREN 15ETIK 26RA. ORDUA: 6ETATIK - 8ETARA

1997-98 Ikasturtea

KIROLETAKO UDAL PATRONATUA



IKASTAROA	KOPURUAK	EGUTEGIA	ORDUTEGIA	PREZIOA
MANTENIMENDU SOINKETA	15-25	Astf-Astz-Osti.	9:00	16.700
	"	"	10:00	16.700
	"	Astr-Oste.	19:00	12.200
FITNESS	15-25	Astf-Astz-Osti.	12:00	16.700
	"	"	19:00	16.700
	"	Astr-Oste-Osti.	20:00	16.700
AEROBIC	15-25	Astr-Oste.	10:00	12.200
	"	"	15:30	12.200
	"	"	21:00	12.200
	"	Astr-Oste-Osti.	11:30	16.700
	"	Astf-Astz-Osti.	18:00	16.700
	"	"	19:00	16.700
	"	"	20:00	16.700
	"	"	21:00	16.700
AEROBIC. GAZTEA	15-25	Astr-Oste.	18:00	12.200
AQUAGYM	8-15	Astf-Astz-Osti.	9:30	22.000
	"	Astr-Osti.	9:30	17.000
	"	"	19:30	17.000



IGERIKETA	KOPURUAK	EGUTEGIA	ORDUTEGIA	PREZIOA
3-4urte				
0 Maila	5-7	Astf-Astz.	17:30	4.000
	"	Astr-Oste.	17:30	4.000
1go. Maila	5-7	Astf-Astz.	17:30	4.000
5-6 urte				
1go. Maila	7-10	Astr-Oste.	18:30	2.800
2. Maila	7-10	Astf.17:30	Osti.18:30	2.800
6 urte				
2. Maila	8-15	Astz-Osti.	18:30	2.800
Helduak				
1go. Maila	8-15	Astf-Astz.	9:30 - 19:30	2.800
2. Maila	8-15	Astr-Oste.	9:30 - 19:30	2.800



IKASTAROA	KOPURUAK	EGUTEGIA	ORDUTEGIA	PREZIOA
YOGA	15-25	Astf-Astz.	16:30	16.700
	"	Astf-Astz.	18:00	16.700
3. ADINA	15-25	Astf-Astz-Osti.	11:00	16.700

- Ikasturtea urria eta ekaina bitartekoa da. Igeriketako ikastaroak hilabetekoak dira.
- Izenemateak

Noiz: Iraupen luzeko jarduerak (urria-ekaina) Irailak 15etik 26ra.
Igeriketa ikastaroak: Irailak 22tik 26ra.

NON: Allurralde Kiroldegiko bulegoetan
10:00etatik-13:00etara eta 17:30etatik-19:00etara

Allurralde Poligonoa z/g
Tfno.: 300154 - Fax: 300130
Andoain 20140

1. AURKIBIDEA.
AIURRITARRAK
Joxin Azkue
"Ikasturte berri on".
2. GALDEZKA.
Eta zuk, zer egingo duzu ikasturte berri honetan?
3. ADUNA.
Sahararik Adunara.
- 4-5-6. ANDOAIN.
Zirkulazio norabide aldaketak.
Kirol ikasturte berria.
Harkaitz Lasa trikiritilaria.
7. ASTEASU.
Santa Cruz ermita zaharberritua.
- 8-9. BILLABONA.
Kutsa eta bake epaitegia erreta.
Inigo Guridi gartzelan.
10. ZIZURKIL.
Alkartetxea eta batzokia erre dituzte.
11. OFIZIOA.
Inaki Ezkerra. Kukuteko autobus gidaria.
- 12-13. ERREPORTAIA.
Ezkuutko indarren bila.
- 14-15. ELKARRIKETA.
Ane Legorburu eta Lourdes Muñoz irakasleekin solasean.
- 16-17. KULTURA.
Teresa del Valleren liburu berria
Ernioko gurutzearen 50. urtemuga.
18. ERRETRATU ZAHARRA
19. ZER BERRI: LEHAKETA
20. AGENDA

IKASTURTE BERRI ON



JOXIN AZKUE

Lurrikadak, Santo Domingotik ekarriak, Txipi, Ibarako gertakizunak, Orfeoiairen omenaldiak, herriko festak, Lady Di, Euskadi tropikalaren beroak... Joan zaigu uda. Ikasturte berriaren atarian gaude, lanean hasiak edo hastear. Askok, gehiegik tamalez, eta gazteek bereziki, lan aukera baten ametsaren atzetik jarraitu beharko dute beste behin ere.


Iparraldean izandako bi heriotzek markatu didate uda: hasieran, urte askotan niretzat lagun mina izan den Martin Karrere, Arbonako apaizarena; eta uda bukaeran, horrenbestetan ikastolen gidari gisa aritu zen Jean Louis Maitiarena. Oso desberdinak biak, nola ez. Baina, era berean, oso berdinak ere. Bakoitzak bere alorrean. Euskararen eta euskal kulturaren sustatzaileak biak, bizi osoa bere zerbitzuan eman zutenak. Biak joan dira eskuak proiektuz beteak. Biek zioten euskararik gabe Euskal Herriak ez zuela etorkizunik. Beraien abertzaletasuna ez zen itxura arin huts horietakoa, hesteen aurrean ondo gertatzeko zurikeria faltua. Oztopo guztiak gaingiduz, sinesten zutenaren alde bere konpromezu publikoa aldarrikatzen eta era militantean borrokatzen saiatu ziren urteak eta urteak. Biek, gainera, mugimendu abertzalea gutsik bezalako zabal-tasun handiz ulertzen jakin zuten. Euskal Herriko gerora, gaztedira, iristeko kezka handia erakutsi zuten, hauen artean abertzaletasunaren militantziaren konpromezu berriak suspertuz. Nonahi errespetua sortzen duten gizaki horietakoak genituen Martin Karrere eta Jean Louis Maitia. Kopeta tente, aurrera begira beti, tinko. Abertzaletasuna, konpromezua eta militantzia.

Badira gure artean abertzaletasunaz, konpromezuaz eta militantziatz aho bete jarduten dutenak, dotore, baina une zailetan inon agertzen ez direnak. Hori bai: beraien abertzaletasuna, beraien militantzia, beraien konpromezua goraiatzeko, bost duroko hitzak erabiltzeko abilezia erakusten dute. Haizeak daramatzenak benetako unetan, esatetik izatera pasa behar denean. Hirurogeita hamarrek hamarkadan, justu lehen hauteskundeen aurretik gure herriko udaletxean zeudenek egiten zutena gogoratzen didate: Franco kolokan zegoen garai erabakior haietan abertzaletasunaren aldeko udal ekitaldiren baterako deialdia jaso, eta zera erabaki: 1.-Ekitaldi horrekin bat egiteko borondatea adieraztea baina 2.- Gobernazio Ministeritzak agindu duen ekitaldi horren debekua onartzea. Abertzaletasuna, konpromezua eta militantzia. Edo ez?

Enfin, Uda bukatu dela, betiko ohikerian eta rutinan murgiltzera goazela. Betiko arazoak, betiko aurpegiak, betiko bizimoduaren betiko gorpila. Eta Zizurkilgo Udaletxean, aldaketak, larrosak, arantza. Zer gertatuko ote da iadanik martxan zeuden hainbat ekimbiderekin? Ea zein norabide hartzen duten agintari herriek. Soinuaren araberako dantza izan ohi da, eta ez dezagula behintzat udazken berorik izan!

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiarza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernaras **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zu-billaga, Oñati). Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



AIURRIREN AURPEGI BERRIA

Erreparatuko zenutenez, ez ohizko azala du eskuartean eginduz Aiurrik. Aldaketak azalari egiteaz gain, mamiari ere zilagunen aurpegi eta iritziak maizago ikusteko txokoak gehitu baitizkiogu aldizkariari. Beraz, hemendik aurrera zuen herrietako tako aspaldiko kontuen berri emango digu *Zabarrak* berri atalak; *Berriak* ziri atala berriz, herriko azken gertaerak, bitxikeriak edota kotileoak kontatzeko txokoa izango da. Irakurketa ona izan!

GALDEZKA

ETA ZUK, ZER EGINGO DUZU IKASTURTE BERRI HONETAN?



VANESA MORALES
IKASLEA. ZIZURKIL.

Lagun berriak egitea da nire asmoa. Aurten Tolosara noa ikastera, eta beraz, lagun berriak egin beharko ditut. Futbolean jokatzeko jarraitzea da nire beste asmoa.

ANER ELGORRIAGA
IKASLEA. BILLABONA.

Aurten bosgarren mailara pasako naiz. Futbol ekipoan jokatzeko jarraituko dut eta ingelesa ikastera ere joan beharko dut. Gauza pilo bat egin behar ditut aurten.



XABAT LARRARTE
IKASLEA. ASTEASU.

Aurten ikasten segi beharko dut. Klasetik etorri eta lan egin beharko dut, gainera. Baina pilotan eta gauza gehiagotan jokatzeko ere arituko naiz.

MIKEL PAGOLA
LANGILEA. ADUNA.

Lana bukatu eta lasai egotea da nire asmoa. Ez dut bestelako planik egin.



MIRENE OLAZABAL
IKASLEA. ANDOAIN.

Asko ikasteko asmoa dut. Ikasketaz gain, lagunekin jolastu eta beharbada, eskolako kiroltan parte hartuko dut. Gainerakoan, oraindik ez dakit zer egingo dudana.

JON IRAOLA
IKASLEA. ANDOAIN.

OHOKo 3. mailan hasi naiz eta aurten ingelesa, informatika ... ikasiko ditut. Irakasgai ugari ikasteaz gain, lagunak egin eta hauekin Ondarreta parkean elkartu eta jolasteko asmoa dut.



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

ALFARO
JATETXEA

EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

SAHARATIK ADUNARA

S eitik hamalau urte bitarteko 35 haur izan dira Adunan abuztuaren 14an. Herriko festen lehen egunak, beraz, Afrika aldeko etorritako lagun hauen bisita izan zuen ardatz. Adunan egun bakarra igaro zuten arren, orohar, bi hilabete-ko oporrak egin dituzte Donostian. Sahara bertako begiraleak eta Euskal Herriko begiraleak arduratu dira haur hauetaz, eta gaua familia euskaldun baten etxean igarotzen zuten. Aipatzekoa da Euskal Herrian Saharako ordezkari denak bota zuela aurtengo jaietxer hasiera emateko txupinazoa, eta udaletxean, ikurrinarekin batera, Saharako bandera izan da ikusgai.

ADUNA EZAGUTU

Goizean, herriko haurrak eta Saharakoak elkar ezagutzeko, pegatina hana jartu zuen bakoitzak bere izenarekin. Ondoren, Adunako sagardotegiak, baserriak eta lorategiak ezagutzera joan ziren. Eguerdian frontoian bazkaldu zuten haur guztiak. Iluntze aldera joan ziren haur saharatuarak Donostiara, haur jolasetan nahikoa jolas egin ondoren. Gainera, opariak besapean hartuta joan ziren haur guztiak.



Generako jantzerak
Adunara.

JAI EDERRAK

Festa batzordekoek, jaien balorazio ona egiteaz gain, datorren urtean ere Saharako bisitari berezi hauek herrira ekarriko dituztela diote. Herriko haurrentzat nola Saharakoentzat esperientzia ona izan dela uste dute. Festak aurrera ateratzeko gogor lan egin duten batzordeko kideek jaiak oso ongi igaro direla esan digute. Michel Ducau eta Caroline Philipen kantaldia, axeri dantza eta oilasko jokoa izan dira, besteak beste, arrakasta gehien izan duten ekintzak. Oilasko jokoa, aurten, mozorrorik egokienari saria eman diote, eta aiton-amonez mozorrotu ziren koinatek irabazi zuten saria. Bestalde, aurten herrikuntza

moduan antolatu duten herri krosak izan duen arrakasta ikusita datorren urtean hobeto antolatuko dutela adierazi digute. Bukatzeko, azken egunean antolatu zuten asto karrerak merezi du aipamenik. Gauean egin zuten karrera, herriko plazan, eta lau asto aritu ziren elkarren artean lehian. «Nahi ta ezin» astoa izan zen garaile.

GAZTE FESTIK EZ

Urtero irailean antolatzen zituzten gazte festak aurten ez dira ospatuko. Izan ere, nahikoa berandu hasi ziren festa egun horietan zer antolatu pentsatzen, eta beraz, aurten, ez da festik izango.

► HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDA-
LI GURE EGOTZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: Herria:

Entitateak Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Lanbidea: Jaiotze data:



Tokia, data eta izenpea:

Etxeko[☎]: Laneko[☎]:

**ZIRKULAZIO
NORABIDE
ALDAKETAK**

Herriko kale batzuetan norabide bikoitzezko zirkulazioak sortzen zituen arazoekin bukatzeko, kale horietako zirkulazio norabide aldaketak egingo dira. Kale horietako bat Doktor Huizi kalea da. Haurren eskola orduetan, bi norabidetako zirkulazioa zela eta, gatazka ugari izaten zen. Orain, Doktor Huizi kaleak norabide bateko zirkulazioa baino ez du izango.

Hemendik gutxira, Kale Nagusia, Kale Berria eta Juan Bautista Erro kaleetan zirkulazio norabide aldaketak izango dira. Horrezaz gain, Kaletxikin, autobus geltokia eta aparkalekua egokitzeaz gain, kotxeen abiadura geldotzeko banda bat ezarriko dute.



Jone Larrañaga

**BERRIAK
ZIRI**

**IRITSI DIRELA
TRAFIKO ISUNAK**


Etxean izan ditugu lau zapabost. Anaiari jarri diote bost milako bat espaloiairen gainean aparkatzeagatik, lehengusuak beste hainbeste ordaindu beharko du arrasto horia errespetatu ez zuelako. Nik neuk ere, zebra-bidean utzi nuen gauez autoa, eta mila duroko isuna topatu nuen biharamonean aurreko kristalean utzia.

Aspaldiko partez udaltzainak atera dira udaletxe azpiko kaiolatik, eman dituzte bira batzuk herrian oinez (tez autoan) eta gaizki utzitako kotxeak zigortu. Ondo egina. Horretarakoxe daude, besteak beste: trafiko arauak errespetarazteko. Bazen garaia.

Ez naiz ari, inondik ere, aspaldi esandakoegatik neure burua zuritzen. Egiatan diot ongi egin dutela behingoaz bederen. Amaitu beharra zegoen auto-aparkatzaile alferrekin. Etxe atarian bertan utzi nahi izaten dugu kotxea, ondo-ondoko aparkalekuan. 200 metro urrunago joateak triapak sutan jartzen dizkigu. Hori egia da.

Baina egia da, baita ere, badirela egunak etxe inguruan, ondoko kalean, haruntzagokoan eta beste puntakoan bueltak eta bueltak eman arren lekurik topatzea ezinezkoa gertatzen dena. Auto pila izugarria dugu herrian (etxe gutxi dira jada auto bakarra dutenak), eta ezin da, beraz, gaizki utzitako autoak zigortu eta kitto geratu.

Oraingo ohar hau Udaleko trafiko arduradunentzat: has daitezela aparkalekuak non egin pentsatzen. Ai, doaneko aparkalekuak baina. Bi milioi pezetatik gorako garaie-arrasto pribatuak egiteak ez du arazoa konponduko.



xixori

**BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA**

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

VNAI

OINETAKOAK

Kale Nagusia, 12
BILLABONA
☎ 69 12 61

UMI- FIA
GAZTEENTZAKO
OINETAKOAK

Ruben Gelbenzu
aske

Kale istiluetan parte hartzeagatik bi urte, lau hilabete eta egun bateko gartzela zigorra ezarri zioten eta 1.995eko azaroan atxilotu eta Martutuneko espetxera eraman zuten Ruben Gelbenzu gaztea. Maiatzaren 18an, ordea, Valentziako Picassent espetxera eraman zuten eta bertan egon da orain artean. Abuztuaren 27an aske utzi ondoren lehen ongi etorria egin zitzaion Gipuzkoanoko parean. Abuztuaren 30an berriz, Goikoplazan eginiko ongietorriaren ondoren, afaria egin zuten Gaztetxean.



Zirkulazioari buruzko ordenantza martxan

Zerbitzu batzordeak, herriko zirkulazio arazoak konpondu asmoz zirkulazio ordenantza berria jarri du martxan. Ekainean onartutako ordenantza martxan jarri bitartean, arauak hautsi dituztenek zenbait abisu jaso dituzte. Orain, ordea, arauak hausten dituztenek isunak jasoko dituzte. Isunak 15.000 pezeta, 50.000 pezeta eta 100.000 pezeta bitartekoak izango dira. Isuna lehen hamar egunetan ordainduz gero %20ko beharapena izango du. Hamabost egun pasa ondoren %20a gehiago ordaindu beharko da.

Sorabillako jaiak

Irailaren 5ean hasi eta irailaren 13a bitartean haur jolasak, dantzaldia, bertsolariak, herri kirolak eta meza nagusia izan dituzte beste ospakizun askoren artean. Bihar berriz, azken egunean, oilasko jokoaren eguna izango da. Goizeko seietan hasiko dira oilaskoak biltzen, eta ondoren, oilasko jokoa egingo dute. Arratsaldeko hirurak aldera egingo den gazteen bazkariarekin bukatuko dituzte aurtengo Sorabillako festak

KIROL IKASTURTE BERRIA

Urri-ekain bitarteko ikasturte berria hastear dago. Kirola egitea gustuko dutenek igeriketa, aerobick-a (baita gazteentzat ere), mantenimendu soinketa, yoga, fitnessa, eta 3. adinekoentzako soinketa ikastaroetan parte hartu ahal izango dute. Berrikuntza nagusia aerobick ikastaroetako ordutegi berria da: arratsaldeko 15:30etatik 16:30etara bitartean, alegia. Ordutegi berriaren arrazoia, goizez edota arratsaldez kirola egin ezin duten herritarrei kirola egiteko aukera ematea da.

Kiroldegiko arduraduna den Ixiar Olanoren hitzetan, helburua, herritar guztiari kirola egiteko aukera ematea da: "Ordutegi eta kirol ezberdinen ikastaro eskaintza bandiarekin, herritar guztiengana iritsi nahi dugu". Horrezaz gain, 65-75 urte bitarteko helduak ere kirola egitera animatu nahi dituzte: "Gainerakoek ez bezala, 3. adineko pertsona guztiak prezioa bakarria ordaindu behar dute ikastaroagatik, izan ere, beste herritarrek, bazkide ez direnek, gehiago ordaindu behar izaten dute".

**ESKAINTZAK
UGARITUKO
DITUZTE**

VIDEO CLUB

- Bideo zintak alokatzen dira
- CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba.
- TV, Bideo, Hi-Fi, CAR AUDIO... konpontzen ditugu.

Txermin kalea, 21 behea BILLABONA

TXERRIEKIEK BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

**Euskadiko
Kutxa
erre dute**

Abuztuaren 6an, Euskadi Kutxako bi erakusleihu hautsi eta zenbait koktel molotov jaurtiki ondoren egoitzak su hartu eta guztiz hondatuta gelditu zen. Kalte materialak 20 milioitik gorakoak dira. Horrezaz gain, Euskadiko Kutxako egoitza dagoen Juan Bautista Erro kaleko bederatzizentabakiko gas instalakuntza kaltetu aurretik bizilagunak kalera irtenarazi zituzten suaren ondorioz. Egoitza berritu eta egokitu bitartean kale bereko zazpigarren zenbakian ezarri dute behin-behineko egoitza eta bi edota hiru hilabetetan bertan izango dira.

**Zirkulazio
etenak**

Urriaren 6tik 12ra bitartean egingo den Munduko Txirrindularitza proba dela eta errepide nazionala (N-1, Donostiarako norabidea) eta Urrietako errepidea (GI-131) zenbait orduz etenik egongo dira eta, horrenbestez, ibilgailuek ez dute ibiltzerik izango. Horren berri emateko eta ordezko ibilbideak zein izango diren azaltzeko, Udalak orritxo bat buzoietan utziko du hil honen bukaeran.

**ARKAITZ LASA, EUSKADIKO
TRIKITIXA TXAPELDUN BERRIA**

**HAMAZORTZI URTE DITU ETA HAMABI DARAMATZA PANDE-
ROA JOTZEN. ARREBA ETA BIEK TRIKITIXA BIKOTEA OSATU
ARREN, DUELA BOST URTE AITOR LETAMENDIA BEASAIN-
DARRA DU BIKOTE LAGUN. ABUZTUAN EGINIKO EUSKADIKO
TRIKITIXA TXAPELKETAKO TXAPELDUN BERRIA DUGU.**

- Zaila al da panderoa jotzen ikastea?

Nik, solfeo ikasketak egin gabe, sei hilabetetan ikasi nuen panderoa jotzen. Abesti bakoitzaren erritmoa ikasi ondoren, bakoitzak nahi dituen gehigarriak sar diezazkioke pieza bakoitzari. Ez da zaila, baina jarraikortasuna beharrezkoa da panderoa jotzen ikasi ahal izateko.

- Zenbat txapelketetan hartu duzu parte?

Ez dut gogoan. Txapelketara joan ahal izateko izena eman eta ahal den hobeen jotzen saiatzen gara. Horren ondorioz, hamaika txapela lortu ditut, horietatik bost Aitor Letamendiarekin irabazi ditudanak. Bat, gainera, duela hiru urte irabazi nuen munduko txapelketan.

- Euskadiko txapelketa nolakoak izan da?

Hasieran hamairu bikote ginen. Bakoitzak bi pieza grabatu genituen Euskadi Irratian, eta horren ondoren, sei bikote pasa ginen finalera. Finalean bi pieza horiek eta bikote bakoitzak nahi zuen hirugarren pieza bat jo behar izan genuten. Oso pozik gaude txapela lortu dugulako.



- Zein asmo dituzu etorkizunari begira?

Aitor, ni eta beste batera jole batekin taldea osatu dugu. Oraingoz, beraz, erromeria edota ezkontzetan jotzen ibiliko gara. Horrezaz gain, nire ikasketekin jarraitzeko asmoa dut. Denborak esango du bestelako proiekturik egingo dugun edo ez.

**PATXINE
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXERAKO POSTREAK
Erremerari, 1 ☎ 69 10 25 - ASTEASU



Kaleberria, 9 ANDOAIN TEL.F. 59 35 49

MIRARI

ILEAPAINDEGIA

ELIZONDÒ PLAZA, 2

☎ 590162

ANDOAIN



Angeles Uzquidin

ERNIOKO ERROMERIA

Igande bezperan hamarretako trenean Errenderiatik eta urrutiagotik etorzen ziren gazteen bila joaten ziren Asteasutik autobusak Billabonara. Asteasun afaldu eta gauean igotzen ziren Erniora gazteak. Bazkaltzera herrira jaisten ziren, Albinonean (oraingo Iturriondon) bazkaltzen zuten. Nahikoa lan egin dugu guk Albinone-rako oilaskoak lumatzen! Kale Nagusian barrena etortzen ziren Ernietik gazteak, soinua jotzen, eta oso giro polita jartzen zuten. Ernio inguruko herri bakoitzak igande jakin bat hartzen zuen Erniora soinua eta guzti igo eta festa antolatzeko. Zelatunen egiten zen erromeria, eta salda Zelatunen bertan eta Ernioko gurutzearen bidean dagoen bordan eskaintzen zuten artzainen andre-ek. Errezilgo emakumeak aspaldiko errezoak errezatzen aritzen ziren kalbarioetan, eta koadrila bat osatuz gero gurutzera iritsi arte dauden gurutzeetan errezatzen zuten emakumeek gazteekin batera. Gora iristean koadrilako gazteek borondatea ematen zieten emakume horiei. Lehen kolore guztietako zintak saltzen zituzten, baita medailak ere. Guk, umetan, Ernietik Asteasura jaisten zirenei horrelaxe esaten genien: Zinta bat faborez! Zinta bat faborez! Zinta ematen ziguten baina medaila ez, eta noski, guk hori nahi izaten genuen. Lehen, erromeria egiten zen arren, erlijioagatik igotzen zen jendea Erniora, kalbarioak egitea. Orain festa da nagusi.

Joxe Lizaso
asko

Joxe Lizaso asteasuarra herrian da uztailearen 22az geroztik. Joxe 1993. urtean atxilotu zuten Baionan eta Frantziako La Sante espetxean egon zen ia az arte. Izan ere, ia azko uztailean Estatu espainiarreko estraditatu zuten eta Carabanchelgo espetxean egon da urtebetez. Uztailearen 22an egin zioten epaiketa loxeri, eta epaileak, errugabe dela erabaki ondoren, aske utzi zuen.

SANTA KRUTZ ERMITA
ESKU GAZTEZ
TXUKUNDUTA

Ahaztuta Estatu espainiarreko gazte talde bat izan dugu Asteasun. Santa Krutz ermita konpontzera etorri dira, eta oporrak pasatzeko era berri bat izateaz gain, taldean bizitzeko, Euskal Herria ezagutzeko eta gizartearentzat onuragarria den lan bat burutzeko aproposa izan da gazteek parte hartu duten auzolanderia. Izan ere, eta Santa Krutz ermita txukuntzeaz gain, Asteasu eta inguruko herriak nola herritarrak ezagutzeko aukera ezin hobea izan dute etorri diren gazteek.

ZAHARBERRITZE
LANA
BURUTU DUTE
GAZTEEK
SANTA KRUTZ
ERMITAN

XVIII. mendean eginiko Santa Krutz ermitaren fatxada erabat aldatu dute gazteek. Hormak

pikatu dituzte estalirik zegoen harria eta izkinetako silarriak agerian uzteko, eta noski, agerian utzi duten hori guztia txukundu egin dute.

Orain, eta ermita guztiz konpontzeko lanak bukatu ez dituzten arren, asteasuarren esku dago ermita hori zutik eta egoera onean mantentzea.



Ermita txukunduta

Merkatu berezia

Iaz antolatu zuten lehenengo aldiz Irrintzi elkarteko lagunek Euskal Herriko txoko ezberdinetako elikagaien merkatua. Izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere gauza bera antolatu dute. Errioxa, Iparralde eta gainerrako herrialdeetako 40 lagun etorriko dira irailaren 13an, larunbatean, Billabonara. Bakoitzak bere mahai eta elikagaiak jarriko ditu salgai, eta ikusmirarako ezezik gauza gozo eta bereziak erosteko aukera izango dugu larunbat goizean. Udalak, gainera, saltoki politeknari saria emango dio.

Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa

Billabonako lau elkarteek gain, Asteasuko eta Zizurkilgo elkarteek haruko dute parte merkatua egingo den egun berean Irrintzi elkartean antolatu duten sukaldaritza lehiaketan. Txekorraren buztana prestatu behar dute guztiak, eta goxoen jartzen duen elkarteari sukaldean erabiltzeko diren ontzi soria bat emango dio Lakor enpresak. Bestalde, orain arte Uxo Toki elkartean (iazko irabazleak) egon den eskultura, Tomas Ugartemendiak eginiko eskultura hain zuzen, aurtengo irabazle berriak eramango du bere elkartera. Hiru urtetan segidan irabazten duen elkarteak betirako eskultura elkartean edukitzea lortuko du, edota bestela, segidan ez bada ere, bost urtetan zehar irabazten duenak. Lehiaketa urte gehiagotan antolatu duten arren, eskultura saritzat ematen den bigarren urtea da aurtengoa.

KUTXA ETA BAKE EPAITEGIA ERRE DITUZTE



Kaleberriko Kutxaren egoitza erabat kiskalita utzi zuten ezezagun batzuek abuztuaren bigarren asteburuan. Erakuslehiotako pertsianak eta kristalak hautsi eta zenbait koktel molotof bota zituzten barrura. Kutxaren egoitza osoa erretzeaz gain, egoitzaren gainean bizi den jendea kalera irten zen suak hartu zuen indarra zela eta. Kalte material handiak eragin zituen era-soak.

Abuztuaren amaiera aldera berriz, bake epaitegia erre zuten baina ez zen kalte material handirik egin. Egileek beraiek zenbait egunkarietan azaldu dutenez Iñigo Guridi billabonatar gaztearen at-

xiloketa salatzeke erre zuten bake epaitegia.

Udalak gogor salatu ditu bi eraso horiek, egileak pironomanoak direla adieraziz eta herritarrak arriskuan jartzen dituztela esanez.

Gainera, udalak, alternatiba demokratikoa hori al den galdetzen zuen kaleratu zuen oharrean. Horri erantzunez, Billabonako Jarraik ohar bat kaleratu du pironomano bakarrak Ajuria Eneko paktua osatzen duten alderdiak direla esanez. Diotenez, beraiek dira gizarte honen errealitatea distortsionatu eta eraldatzen duten bakarrak. Azkenik, «Alternatiba Demokratikoa» horrelako erasoak gehiago ez gertatzeko bidea dela diote.

**UDALAK
GERTAERAK GOGOR
SALATU DITU**

Loitzo
Etxeko Osagaiak
**LANPARAK ALTZARIAK
KOLTZOIAK OPARIAK**
Errota kalea. - 3 69 21 35 BILLABONA

**FRANCISCO
MENDIKUTE
Harategia**

Kaletxiki, 15 - 59 02 58 - ANDOAIN

IÑIGO GURIDI ESPETXEAN

BALAZ ZAURITU ZUTEN IBARRAKO ISTILUETAN



Iñigoren askatasuna eskatzeko mobilizazioak

Iñigo Guridi gaztea Martuteneko gartzelan dago duela pare bat astez geroztik. Iñigo Ibarako jaietan izan ziren istiluetan zauritu zuten balaz, eta berak istiluetan ez zuela parte hartu deklaratu arren, gartzeleratu egin dute istiluetan parte hartu zuelakoan. Ertzaintzaren iturrien arabera ertzain bati koktel molotof bat botatzera zihoanean bota zion tiroa ertzainak gazteari. Tolosako Asunción hospitalean egun batzuk igaro ondoren Martuteneko gartzelan dago orain.

MOZIOA EZ ZUTEN ONARTU

Billabonako Udalak ez zuen Amnistiaren Aldeko Batzordeak aurkeztutako mozioa onartu. Mozioan, Ertzaintza-enemigo publikoa zela salatu eta pistolak gordetzeko eskaera egiten zioten Ertzaintzari, Iñigoren askatasuna eskatzeaz gain. Udalbatzak ezezkoa eman zion mozioari Ertzaintza-enemigo publikoa ez dela erantzunez. Bide-

aneko lau zinegotziek bozkatu zuten aurka HBko hiruek mozioaren alde egin zuten bitartean.

EA eta EAJ-PNVko zinegotziek ez zuten udalbatzarrean parte hartu.

IÑIGOREN ERRUGABETASUNAREN ALDE

Iñigo errugabea dela esateko eta bere askatasuna eskatzeko ekintzak egingo dira gutxian. Oraindik zer egin zehazteko dagoen arren, herritar batzuk biltzen hasi dira Iñigo errugabea dela aldarrikatzeko.

ORTE
CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**EGUZKITAKO
BETAURREKOTAN
AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17

Agurri
FISKALARIAGIA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

 **ALOTZ
IZOZKINAK**

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN



**AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA**


IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA

ZIZURKIL

JUANJO ARANBURU ALKATEAK DIMITITU EGIN DU



Azken bi urtetan alkatea izan den Juanjo Aranburuk bere dimisioa aurkeztu berri du. Alkate ohiaren esanetan, lanak aginduta aurkeztu du bere dimisioa. Alkate berria aukeratzeko udalbatza gutxian bilduko da, honez gero bildu ez bada, izan ere, informazio hau egiterako orduan biltzeke zegoen.

HIRUKOAREN ALKATETZA

Duela bi urtetako hauteskundetan HB alderdiak jaso zituen botunik gehienak, baina PSE-EE, EA eta EAJ-PNV alderdi politikoek hirukoa osatu eta Juanjo Aranburu aurkeztu zuten alkate gisa. Gauzak horrela, eta Zizurkilgo Udaleko hamaika zinegotzien aldeko sei botuekin, Aranburu izendatu zuten alkate.



Aloña Ipintza

AMAIGABEKO ARAZOA

Zubimusu zubiari irtenbideren bat bilatu behar zitzaiola eta, 10 urte baino gehiagoz borrokatu zuten Zizurkil eta Billabonako Udalek Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Diputazioarekin. Azkenik, hasiera eman zitzaion zubia zabaltze lanei. Bapatean, errepidea hankaz gora jarri zuten. Ia ezinezkoa zen Ubare auzora sartzea, tresneria, zuloak, barandillak..., bizen traste ugari inguru horretan. Zubi prefabrikatu bat ere jarri zuten oinezkoak Billabonara iritsi gintezen eta Sacem-erako bidea ere ireki ziguten.

Gauzak hala, 1994an bapatean lanak bertan-behera gelditu ziren. Gobernuak, egungo zubia harriz-harri kendu eta beste nonbait kokatu ondoren, berri bat egitea agindu zuen. Udalek kostu hauei aurre egin ezinik lanak geldiarazi zituzten.

Auzoa bere onera itzuli zen arren, kalteak nabariak dira.

Gaurko umek ez dituzte ez guk hainbat ordu pasako kalean jolasean. Nire garaian jolastoki paregabea zena errepide oso garrantzitsu bihurtu dela dirudi. Harrigarria da kale horretan kotxeek daramaten abiadura, gidariak ez dira ez ohartzen oinezkoentzat horrek suposatzen duen arriskuaz. Aparkalekuen arazoa ere ez da makala, auzotarrok geure autoak non utzi ez dakigula ibiltzen gara egunero, billabonatar batzuk beraiena hemen uzten dutelako, "zubi prefabrikatuaren abantailak!"

Udala neurriak hartzen hasia da, baina oraingoz inork gutxi errespetatu ditu. Neurriak areagotzen direnean kexu izango gara, baino ikusitakoak ikusita, zer espero dezakegu!

ALKARTETXEA ETA BATZOKIA ERRE DITUZTE




Zizurkil beheko jaietan, hilaren 5ean, EAren egoitza eta EAJ-PNVrena erre dituzte. Lekukoen arabera 50 kaputsadunek koktel molotolak jaurti zituzten aipaturiko bi egoitzetara, eta ondorioz, Alkartetxea behinik behin, erabat kiskalita gelditu da. Eraso hauek salatzeke jaietako zenbait koadrilek sinadura bilketa eta bost minutuko konzentrazio isila egin zuten hurrengo egunean. Une berean eta Euskal Herria askatu lemapean herritar multzo bat konzentratu zen. Ertzaintza konzentrazio parcan jarri zen baina ez zen istilurik izan.

UDALBATZA ERASOA GAITZESTEKO

Informazio hau idazterakoan erasoak gaitzesteko udalbatza egiteke zegoen, baina aste honetan egitekotan. Bienbitartean, EA eta EAJ-PNV alderdiek salaketa gogorrak egin zituzten HBren aurka, eta herria suntsitzen zuten faszista koadrila horien ekintzetatik aldentzeko eskatu zioten.

Beterriko Liburua

1997



Antolatzaile:



Babesle:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskarako Departamentua



Adurá



Andoain



Asteasu



Billabona



Larrault



Zizurkil

Aurten ere...

Irakurri Proposat

Hasi gara lanean 1997. urteko euskal libururik ederrenaren bila. Lagunduko al diguzu?

Dagoenekoz kaja bete liburu da euskal argitaletxeek plazaratu dutena 1997. urteko lehen seihilabetekoan. Irakurri al duzu baten bat uda honetan?

Larramendi Bazkunak 1997. urtea amaitzean zuen iritzien bidez aurtengo euskal libururik ederrena aukeratzeari ekingo dio, baina, bitartean, Aiurri aldizkariaren zenbakietan orain arte argia ikusi duten liburu batzuen berri emateaz gain, lehiaketa batean partehar dezazun proposatu nahi dizu. Zertarako? beterriar batek, irabazleak hain zuzen ere, asteburuko egonaldia egin dezan Kantabrian, Santillana del Mar herrian, dohainik, nahi adina liburu irakurtzen eguzkiaren epeletan.

Uda honetan libururik irakurri baldin baduzu, ez duzu lan handirik hartuko gure lehiaketan esku hartzearekin. Ea bada!

Gogoan bai? lehiaketa

Ondokoak dira lehiaketaren oinarriak:

a) Inprimaki honen atzealdean 15 galdera daude, argitara emandako 5 liburuei buruzkoak. Galdera horietako seien erantzuna asmatu behar duzu.

b) Edozein galderari eman diezaiokezu erantzuna, 15 horietakoa izan behar du, besterik ez. Eskuin aldeko orrian dagoen txarteltxoan idatzi behar dituzu erantzunak; ez ahaztu!, dagokien zerbakia jartzea aurretik.


c) Bidal ezazu lehenbailehen Larramendi Bazkunera. Urtea bukatu bitartean lehiaketarekin jarraituko dugu, eta otsailaren 15a baino lehen zozketa egingo dugu jasotako txartel guztien artean.

d) Irabazleak asteburu bat igaro ahal izango du beste lagun batekin Santillana del Mar herri kantauriarreko bungalow batean, eta ostalua eta mantenua ordaindurik izango dituzte.


e) Irabazleak asteburuko egonaldia 1998ko martxoaren 3tik apirilaren 30era bitartean egin ahal izango du (Aste Santuan izan ezik). Behin data hori igarota, sariaz gozatzeko eskubidea galduko du.

f) Partaide bakoitzeko txartel bat baino ez da onartuko.

ORAIN ARTEKO UZTA...




NON DAGO BASQUES HARBOUR?
Susa, poesia
Izagirre, Koldo
125 orr., 1600 pta.




AGIRRE
Elkar, biografia
Zuberobengoa, Aitor
111 orr., 990 pta.



ZAURIAREN SALMOAK
Bermingham ed., poesia
Ezkiaga, Patxi
205 orr., 1400 pta.



BERRIRO IGO NAUZU
Elkar, eleberria
Mendiguren, Xabier
249 orr., 1850 pta.



HAUTSI DA KRISTALA!
Euskaltzaindia, antzerkia
Irigioen, Mattin
63 orr., 425 pta.



AUTONOMOEKIN SOLASEAN
Txalaparta, kronika
Arrizabalaga, Jesus
262 orr., 1700 pta.



KALEZULO
Alberdania, eleberria
Mendizabal, Jexuxmari
135 orr., 1400 pta.



ZAPATA-REN OIHANA
Susa, kronika
Aranbarri, Iñigo
178 orr., 1800 pta.



KATTALIN ERAUSO
Elkar, biografia
Zuberobengoa, Aitor
133 orr., 1050 pta.



ARRAGOIA
Txalaparta, eleberria
Urrujulegi, Jon
303 orr., 1700 pta.



GASTEIZKO HONDARTZAK
Susa, narratiba
Montoia, Xabier
297 orr., 2200 pta.



GAUAK ETA HIRIAK
Elkar, eleberria
Apalategi, Ur
246 orr., 1900 pta.



- bikaina
- ona
- egokia

Oharra:
termometroa literatur
aipameneko iritzi-
emaleek irakurririko
liburuei baino ez zaie
atxekitzen.



BETERRIKO LIBURUA 1997

Izen-deiturak

Herria ☎

SEI ERANTZUNAK

●	-----	●	-----
●	-----	●	-----
●	-----	●	-----

Oharra: zirkulo barruan jarri galderaren zenbakia

NAHI AL DUZU ASTEBURUA SANTILLANA DEL MAR HERRIAN IGARO?

Har ezazu parte «Gogoan bai» gure lehiaketan

- BI GAU SANTILLANAKO KANPINEKO BUNGALOW BATEAN.
- BI EGUNETAN MANTENU OSOA
- SANTILLANAKO ZOORA BISITALDIA
- HERRIKO ALDIRIETAN TXANGOAZALDIZ
- AFARIA IKUSKIZUN ETA GUZTI
- HORI GUZTIA BI LAGUNENTZAT DOHAINIK



BERRIRO IGO NAUZU

- 1.- Non egiten diote omenaldia protagonistari?
- 2.- Non egiten du lan Arantxak, aspaldi bateko neskalgunak?
- 3.- Marmitte espetxetik irten eta etxeratzen ez zela ikusita zer uste edo zer pentsatu zuten etxekoek eta lagunak?

GASTEIZKO HONDARTZAK

- 4.- Zein da Hans Schwarz gaztearen eginkizuna Gasteizen?
- 5.- Nola eskuratu zuen Añua komandanteak burdinezko gurutzea?
- 6.- Zein hiritan ezagutu zuten elkar Henryk eta Martzelok?
- 7.- J. A. AGIRRE (Biografia)
Belgikako zein herritan suertatu zitzairen Agirretarrei alemanen inbasioa?

- 8.- Zein unibertsitatetan jardun zuen Agirrek irakasle?
- 9.- Nor zen Agirre lehendakariarekin afaldu zuen Mendez izenekoa?

KALEZULO

- 10.- Zein da frantximant malapartatuaren izena?
- 11.- Asierrek eta bere bi lagunak zergatik egin zuten borrokan Sarobe dantzalekuan?
- 12.- Eleberraren amaieran, zertarako deitzen dio Argalak Asierrri?

GAUAK ETA HIRIAK

- 13.- Non ezagutu zuten elkar Antton eta Felixek?
- 14.- Zein filme ikusten dute Antton eta Murielak beraien lehen hitzorduan?
- 15.- Zein da Felixen afizioa?

Merkatal erantzuna
15.442 zenbakiko baimena
B.O.C. 97-02-21

Ez du posta
zigilurik behar;
iristokian
ordaintzekoa

LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA
«BETERRIKO LIBURUA 1997»
2. postakutxa
20140 ANDOAIN

*Zalantzarik?
Dei egiguzu: 300-733*

IÑAKI EZKERRA

«KUKUTE» MIKROBUSEKO GIDARIA

LAU URTE
DARAMATZA
AUTOBUS
GIDARI GISA
LANEAN.
HAUR ETA
GAZTEAK
IKASTETXERA
ETA LANGILE-
AK LANTOKIRA
ERAMATEA DA
BERE LANA.
HORREZAZ
GAIN, EGUN BATEKO IRTEERA
EDOTA TXANGOETARA ERE
JOAN OHI DA.



Gogo handiz hasi da lanean Iñaki Ezkerra

- Zergatik hasi zinen autobus gidari gisa lanean?

Hogeita hamar urte lantokian lan egin ondoren lanik gabe gelditu nintzen. Hori dela eta, autobus gidari edota taxista gisa lanean hastea pentsatu nuen. Asteasun taxirako plazarik ez zegoenez, autobus gidari gisa hasi eta lau urte daramatzat lan berean.

- Zein zerbitzu eskaintzen duzu?

Irurako haurrak Anoetako ikastolara eramatea eta zenbait langile lantokira eramatea da oraingoz egunero egiten dudana. Horrezaz gain, ezkontzeara, bodegetara bisitak, elurretara eta antzeko lanak ere egiten ditut.

- Autobus berria erosi duzu. Zer dela eta?

Orain ekarri dudana mikrobusa handiagoa izateaz gain, seguritate gehiago du. Egungo erosotasunez hornituta dago. Mikrobus berriak hamasei lagu-

nentzako eta txoferrarentzako tokia du, umeen kasuan hogei ume eta monitorea rentzako tokia dauka.

- Kompetentzi handia al dago alor bonetan?

Bai. Enpresa handiek auto-

bus ugari izaten dituzte eta horien aurrean guk, autobus bakarra dugunok, ezin dugu ezer egin. Horrezaz gain, enpresa berria irekitzea zaila da, eta beraz, bizitzeko adina ematen didan bitartean gustura nago.

- Zer esanahi du Kukute izenak?

Autobusa erosi ondoren izena aukeratu behar nuen. Gauzak horrela, etxekoek Kukute izena jartzeko proposamena egin zidaten. Semea txikitari askotan joan ohi zen mendi txikia da Kukute.

Jose Ramon
TABERNA

PINTXO EDERRAK!!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

Ormendiko Kirolak

KIROLA EGITEKO ETA ZURE ATSEDENALDIRAKO

Eskolako motxiletan aukera zabala!

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF: 59 18 06 ANDOAIN

N **Argentaria**

Aseguruak ARGENTARIA

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69.37.34

ZIZURKIL

BORDA
Jatetxea

Sorabilla auzoa z/g 20140 ANDOAIN

☎ 59 28 60 Faxe: 59 36 91

Ezkutuko indarren bil A

Esoterismoa eta sendatze izpirituala zer ote diren jakin nahian



**DENOK ENTZUN EDOTA IKUSI DUGU ETORKI-
ZUNeko EKINTZAK AURRIKUSI, EZKUTUKO
GERTAEREN BERRI IZAN, SORGINKERIA
EGIN, MAGIA ETA ANTZEKO EKINTZA GEHIA-
GO EGITEN DITUEN BAT EDO BESTE. BAT-
ZUEK, EZ SINISTEAZ GAIN, HORI GUZTIA
KRITIKATU EDOTA GAIAREN INGURUAN
EZER JAKIN GABE, HITZ ETA TERMINOAK
NAHASTUZ, IDEIA OKER BAT DUTE. BESTE
BATZUEK, BELDURRAGATIK EDOTA EZJAKIN-
TASUNAGATIK, EZ DUTE GERTUTIK EZAGUT-
ZEKO ASMORIK. ASKOK, BESTALDE, EZ DUTE
SINISTEN. ETA ZUK, SINESTEN AL DUZU?**

Ezkutuko indar hauek zer diren jakin nahian mundu hori gertutik eza gutzen duen Ramon Etxeberria andoaindarrarekin izan gara.

Aurretik, hitz batzuen esanahia argitzea ezinbestekoa da, izan ere, askok horrela uste arren, praktika horiek guztiak ez dira gauza bera.

ESOTERISMOA ETA OKULTISMOA

Esoteriko hitzak gordeta dagoena adierazten du, baina ez da okultismo hitzaren esanahi berekoa. Hau da, *esoterismoa*, aintzinako erlijio nagusien ezkutuko oinarria da. Isla-

mismoa, budismoa eta kristautasunaren antzera gertatzen da, erlijio horiek guztiak oinarri amankomunak baitituzte, nahiz eta formak ezberdinak izan. Egungo erlijioak esoterismotik kanpo geratzen dira. Esoterismoa gizona Jainkoarengana daraman bidea litza-

teke. Bide hori lantzeko ezaugarri jakin batzuek dituzten pertsonak aukatzen dira, baina ikasketaren bitartez ere ikas daiteke.

Exoteriko hitzak, berriz, kanpoa adierazi nahi du, hau da, jendetzari erakusten zaiona. *Okultismoa* berriz, esoterismoaren ada-

retako bat da. Adar horien artean magia, astrologia, kartomantzia, igarpenak eta sorginkeria daude, besteak beste. Beste mundu batetan lantzen diren bideak dira. Beraz, esoterismoak ez du zerikusirik kartak bota, edota etorkizuna iragartzearekin, askoren uste okerraren aurka.

IRAGARPENAK

Iragartzeko modu ugari dago. Eskueta marrak irakuri, kartak bota, kristalezko bola ikusi, hegaztien hegaldia edota hai-zeak hostoak mugitzean ateratzen duen soinua baliogarriak dira horretarako. Badira ere ametsen bi-


dez etorkizuneko gertae-
rak aurrikusten dituzte-
nak. Buruan ditugun ko-
digo, seinaleen bidez ira-
kurri ahal da etorkizuna.
Gure adimenak filtro ba-
ten papera egiten du, al-
dez aurretik ditugun arke-
tipoak moldatzea baino
ez du egiten. Beraz, burua
erabiliz aurrikusten da
etorkizuna.

**SENDATZE
IZPIRITUALA**

Pertsonak energia gara
eta energia hori gaizki
orekatuta baldin badago,
osasun edota bestelako
arazoak sortzen dira:
"Medikuntza tradiziona-
lak gorputza baino ez du
sendatzen, baina gizakiok
arima eta izpirituua ere ba-
dugu. Arima edota izpiri-
tutik gorputzera pasatzen
dira gaixotasunak, eta
gorputza sendatzearekin
ez gara arazoaren jatorri-
ra iristen, arazoa estaldu
baizik ez da egiten". Ra-
monen esanetan ohizko
medikuntza eta sendatze
espirituala bateragarriak
izan daitezke: "Bi bide
horien bitartez lagun da-
kioke pertsona bati. Izan
ere, sendatze izpirituale-
ren bitartez energia hori-
ek orekatu egiten ditu-
gu".

BEZEROAK

Ezin da bezeroaren tipolo-
gia zehatz bat egin.
Izan ere, horretaz guztiaz
kritikak egiten dituzte-
nek, praktika horietan
parte hartzen dutenak
baino gehiago izaten bai-
tira. Ramon Etxeberriaren
hitzetan Andoain bezala-



«Argi Hirlaren»
maketa

ko herri batetan ez da be-
zero asko izaten: "Kurio-
sitatea da niregana hur-
biltzen direnak hona
etortzeko duten arrazoia.

Horien arte-
an, gainera,
gehienek kar-
tak botatzea
eskaten dida-
te". Badira ere,
osasun arazo-
ak jota eta,
sendagileek
senda ezinik,
azken aukera gisa "kuran-
deroengana" joaten dire-
nak. Hildako senitarteko
baten bisita edota espe-
rientzia arraroak bizi di-
tuztenak ere horrelako le-
kuetara joan ohi dira, ze-

ren eta ezer kontatuz ge-
ro crotzat hartuko dituz-
telakoan etortzen direla
esan digu Ramonek.

KRITIKAK

Mundu zaba-
la eta ezeza-
guna da eso-
terismoa eta
okultismoa-
ren mundu
hori. Beti
gauza berriak
ikasten ari
dira bertan
mugitzen direnak: "Aurri-
kuspenak egitean ez da
beti asmatzen, baina ho-
rregatik ez da gezurrezko
mundu bat. Mundu hone-
tatik irabazten den dirua-

rekin, ezin da bizi; Bart-
zelonan edo Madril beze-
lako hiri batean ez bada".
Mundu horretatik bizi
ahal izateko, hiztuna iza-
teaz gain, gauzak mani-
pulatzen edota gezurrak
esaten jakitea beharrez-
koa omen da. Jendea en-
gainatzen jakin behar da.
"Hala ere, zientziak bere
legeen bidez esplikatzen
ezin dezakeenak ez du
zertan gezurra izan be-
har. Guretzat ulergaitzak
diren fenomeno horiek
egon bai baitaude, nahiz
eta guk ezin esplikatzen.
Askotan, gehien kritikatu-
zen dutenak gutxien da-
kitenak izaten dira".

Oharra: Erreportai hau idazterakoan mundu hori gertuagotik ezagutzeko aukera izan du kazetari umil honek. Gauzak horrela, kartak bota zizkidaten eta egindako aurrikuspenak egi ote diren edo ez denborak esango du. Gainerakoan bakoitzak pentsa edo sines dezala nahi duena.

Ane Legorburu



“HAURREN PENTSAMENDUARE- KIN BAT DATORREN SISTEMAZ IRAKASTEN DUGU”

Lourdes Muñoz



ASTEASUKO PELLO ERROTA IKASTETXEKO IRAKASLEAK DIRA ANE LEGORBURU ETA LOURDES MUÑOZ. HAMAR-HAMABOST URTE INGURU DARAMATZATE ASTEASUKO HAURREI IRAKASTEN, BAINA AURTEN LOURDES MUÑOZEK EZ DU PELLO ERROTAN KLASERIK EMANGO. IZAN ERE, ERRENDERIAN ESKOLEK DUTEN PATEAN (PEDAGOGIA AHOLKULARITZA TALDEAN) ARITUKO DA LANEAN. BERE LANA HEGO AMERIKETAN ASMATU ETA MARTXAN JARRI ZUTEN IRAKASTEKO SISTEMA BERRITZAILE BAT LANTZEA IZANGO DA, HAU DA, KONSTRUKTIBISMOAN OINARRITUTAKO IRAKASTEKO SISTEMA LANTZEA.

-Zertan datza jada Pello Errotan martxan jarri duzuen irakasteko sistema berritzailea?

Hizkuntza idatzia lantzeko sistema bat da. Ez bakarrik idazten eta irakurtzen ikasteko, baizik eta hizkuntza idatzia bere orokortasunean lantzeko sistema da. Gure ustetan, haurrek, eskolara sartu aurretik, badakite zerbait horri buruz. Izan ere, harremanetan daude hizkuntza idatziarekin (etxeetan egunkariek, kalean kartelek, ...). Konstruktibismoan oinarritutako

irakasteko modu bat da, irakasteko ikuspegi berritzaile bat, eta eskolan erakusten diren ikasgai guztiak landu ditzakegu ikuspegi horretatik abiatuta.

-Eskola askotan hasi al dira sistema honekin irakasten?

1992-93.

ikasturtean jarri genuen guk Pello Errotan sistema hau martxan. Eskola txikien mintegi bat osatu genuen orduan, eta sei eskoletako bederatzi irakasle biltzen ginen Miriam Emerosqui

irakasle argentinarrarekin batera. Emakume horrek asko daki sistema horri buruz, eta asko irakatsi zigun. Guk, gure eskoletan, praktikan jartzen joan ginen ikasten ari ginena. Antzeko mintegi gehiago sortu ziren Gipuzkoan, eta egun, nahikoa zabaldua dago irakasteko ikuspegi edota sistema berritzaile hau.

-Irakasleen ekimenez jarri duzue, beraz, sistema hau martxan. Hezkuntza delegazioetik jasotzen al duzue laguntzarik?
Saiatu gara Hezkuntza Delegazioari laguntzak eskatzen; iaz zertxobait eman zituzten, baina aurrerapausu

handiago bat ematea nahi genuen. Egia esan asko zabaldu da sistema hau; egun 600 irakasle gaude proiektu honetan. Asko zabaltzen ari den sistema da eta behar ditugun materialak, txostenak eta antzekoak burutzeko laguntza beharko dugu.

-Baina sistema hau nola jartzen da praktikan; nola irakasten diezue haurrei?

Gure gelan adibidez, 3 urteko haurrek eskuitzak idazten dituzte, bakoitzak bere erara, baina eskuitzak. Eskutitz horiei seilua jarri, buzoira bota, beste eskola batenko lagunari bidali eta honen erantzuna jasotzen du

gero. Benetako eskutitzak idazten dituzte, beren erara komunikatzen dute. Irakurri ere egiten dute, testuan "hori" jartzen duela iruditzen bazaie "hori" jartzen baitu beraientzako.

Haurrek beren erara interpretatzen dituzte testuak, eta guk, haur bakoitzak dakien hori onartu egiten dugu. Irakurtzeko eta idazteko sistemak dituen arauetaz piskanaka joaten dira jabetzen: hori guztia komunikatzeko egiten dela ikasten duten lehendabizi.

-Eta ongi onartzen al dituzte idazteko arauak behin beraiek nahi duten bezala idatzi ondoren?

Beraiek idatzi duten testuan, beraiek benetan esan nahi zutena idazten diegu guk idazteko arauak erabiliz. Ondoren, beste eskola bateko haurra eskutitz hori interpretatzen hasiko da, bere ustetan hor jartzen duena irakurri. Irakasleak, testua ulertzeko, guk idatzitakoa irakurriko du. Baina funtzio komunikatzailea haurrek beraiek egiten dute; komunikatzeko helburuarekin idatzi eta irakurri baitiuzte eskutitzak. Haurrek hitz egiten ikasten duten moduan ikasten dute idazten: hasieran, bakoitzak ahal duen bezala; eta gero, pis-



"HIRU URTEKO HAURREK ESKUTITZAK IDAZTEN DITUZTE, BEREN ERARA, BAINA ESKUTITZAK"

kanaka-piskanaka, arauak ikasiz ikasiko dute ongi idazten nola irakurtzen.

-Beraz, haurrak dakienetik abiatzea eta haurra zuzenean gaiarekin kontaktuan jartzea da irakasteko sistema horren oinarria?

Haurra da bere ikasketen protagonista. Haurra gai horretan murgildu eta bere modura doa gauzak egiten, arauak piskanaka ikasten ditu. Haurrek asko pentsatzen dute eta azterketa sakonak egiten dituzte. Adi-

bidez, bi hizkiekin hitz bat osatzea ezinezkoa dela iruditzen zaie, gehiago behar dituela uste dute, eta noski, hori ez dator bat silaba bitartez idazten irakasteko moduarekin. Irakaskuntza aktiboa da bultzatu nahi duguna, eta gure pentsamenduari baino haurraren pentsamenduari erantzungo diona.

-Haurraren bizimodua eta ingurunea ere hartzen duzue kontutan, beraz.


Haurrak bizimodu eta ingurune bat dauka, eta guk, ingurune horretako, gizarteko, elementuak erabiltzen ditugu haurari gauzak erakusteko. Finean, ikasiko duena bizitzan baliagarria izateko. Izan ere, egunero dago egunkariekin, karteekin eta antzekoekin harremanetan, guk gero eskolan erabiltzen dugun materialarekin. Haurraren izena eta bere etxeak oso garrantzitsuak dira berarentzat, eta bakoitzaren izenak, adinak eta gauza gehiago hizkiak, zenbakiak eta antzekoak ikasteko erabiltzen ditugu.

-Esperientzia polita izango da, ezta?

Bai oso, ilusioa eman digulan egiteko modu honek. Haurrek gauzak gustura ikasten dituzte, jakinmina dutelako eta gauza praktikoak, egunerokoa, nola diren ikasten dituztelako ingurunearekin harremanetan jarrita. Gainera, haur bakoitzaren erritmoa errespetatzen dugu, haur bakoitzak

bere erritmoan ikasten ditu gauzak, eta batak besteari asko laguntzen dio. Haurraren autonomia lortzea eta taldekidetasuna bultzatzea dira sistema honen xedetakozko batzuk.

"HAURRA DA IKASKETEN PROTAGONISTA, BERAK DAKIENA ETA JAKIN NAHI DUENA LANTZEN DA"



«ANDAMIOS PARA UNA NUEVA CIUDAD», TERESA DEL VALLEREN LIBURU BERRIA

Hirietako kaleek, pasealekuek, monumentuek, jolas parkeek eta edozein biritan aurki ditzakegun gauza eta leku gehiagok gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak areagotu egiten dituela dio Teresa del Valle antropologo astesuarra. Hamar urte inguru eman ditu hiriak generoen artean sortzen dituen ezberdintasunak aztertzen eta Cátedra argitaletxeak kaleratu duen «Andamios para una nueva ciudad» liburuan bildu ditu gogoeta horiek guztiak. Teresaren abizpak, Begoña del Valle, liburuan ageri diren ilustrazioak egin ditu.

Zer da liburuan aztertzen eta adierazten duzuna?

Hiriko espazio publikoa delakoak gizon-emakume arteko harremanetan nola eragiten duen aztertzen dut liburuan. Hori guztia aztertzeko nahikoa ongi ezagutzen ditudan bi hiriburu ezberdinetan aritu nahiz elkarrizketak eta behaketa lanak egiten. Donostian eta Bilbon hain zuzen ere. Espazio publikoa leku fisiko eta dinamiko bat da, hiria bezalako leku batean jende eta aktibitate asko dago, etengabeko aldaketa jasaten duen lekua da. Horrek gizon-emakumeen bizitzan zein eragin duen, espazio horretan nola bizi diren eta zein ondorio ekartzen dituen aztertzen dut liburuan.

Hiriko zer gauza aztertu dituzu?

Lehenik eta behin hirietako kale ize-nak eta monumentuak aztertu ditut. Izan ere, hiriko memoria sozialaren isla dira, bertako jendearen erreferenteak eta identifikazio elementuak dira. Azterketa honetan argi ikusten da gizonezkoak nola gorai patzen diren eta emakumezkoak berriz nola ez diren aipatu ere egiten, monarkia edota erlijioaren ingurukoak izan ezcan.

Azken batean, kalean edota espazio publikoan gizonezkoen nagusigota-

suna nabaria da, emakumeena espazio pribatua edota etxea den bitartean.

Baina gaur egun emakumeek etxetik kanpo egiten dute lan, eskolara joaten dira...

Emakumeak espazio publikoan agertu arren, ez da gurea kontsideratzen dugun espazio bat, denboraldi baterako gaude bertan. Izan ere, nahikoa sinistuta daukagu gure berezko espazioa pribatua dela, hau da, etxea. Lanean ari den emakumeak etxea du erreferentea. Espazio pribatuan egiten den lana ez da baloratzen, lan hori espazio publikoan egiten den iguala izan

arren, haurrak zaindu eta hezitzea adibidez. Espazio publikotik edo kanpotik barrura begiratzeko eta egiten dena baloratzeko garaia heldu da.

Nola burutu duzu azterketa?


Hirietako parkeak, plazak, haurren jolasak, eskolak eta antzeko gauza gehiago behatu eta aztertu ditut. Bestalde, hirietako emakume kolektiboekin elkartu nahiz, baita emakume

arrunt eta artistekin ere, idazleekin gehienbat. Horrez gain, muraletako grafitiak aztertu ditut, zerbait komunikatzeko era alternatibo bat baita. Grafitietan argi azaltzen da hiriek emakumeengan sortzen duen beldurra, hau da, hirietan ematen diren eraso sexualei emakumeek dien beldurra. Izan ere, beldurra da hiriek emakumeengan sortzen duen sentimendurik nagusia. Arteak eta hiriak elkarren artean duten harremana ere aztertu dut, eta Begoña del Valle, nire abizpak, liburuan idatzi ditudan gauzetaz ilustrazioak egin ditu.

Eta hori guztia nola konpondu daiteke?

Konponbidea ez da leku ilunetan tarola gehiago jartzea soilik. Konponbidea gauza horiek zergatik gertatzen diren az-

tertzea da, eta ondorioz, hori aldatzea. Konponbidea espazio horiek guk kontrolatzea eta lasai ibiltzea da, behin arazoaren sustaia aztertu eta aldatu ondoren.



ERNIOKO GURUTZEAREN 50. URTEMUGA



Duela 50 urte gurutzea egin zuten batzila.

Jordea gora...



...eta behara ibil zen Ernio-
nton egin asoan zehar.



meza emizuteko aukeratu
izan zuten.



Moto lasterketa. 1958.



- 1- Bernardo Inza
- 2- Ignazio Mendizabal
- 3- Joakin Zaldua
- 4- Jesus Atxaga
- 5- Francisco Alkorta

Motoristen izen-abizenak argitzea ezinezkoa egin zaigun arren (galdetu zuen etxeke aiton-amonei ea boraiek badakiten), motoristen atzean agertzen diren zenbait herritar zeintzuk diren jakin dugu. Festetan urtero egiten zen lasterketa bateko argazkia da, orain gutxi bukatu diren jaietan egiten zuten lasterketa batekoa, alegia. Pasustik Ventara joan, gero Fraisorora igo eta berriro ere Pasusera bueltatzen ziren motoristak. Batek daki zenbat buelta ematen zituzten ibilbide berean! Herriko nahiz kanpoko motoristak irteten ziren lasterketan, esate baterako, Manuel Castilla zizurkildarrak hartzen zuen parte.

Argazkia eta informazioa Miguel Cardosok eman digu.

Oharra: Etxeko gainan edota zapata kaxan sartuta eta ongi gordeta dituzuen argazki zaharrak Aiurrin ikusi argitaratu baldin badituzue, badakizue, deitu 300732 telefonora kopia bat alera eta zuen informazio jasotzeko. Eskerrik asko.



ALBA

- Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

Pío Baroja, z/g behea. 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona

**Hilero auto baten aseguru-
zozketatzen dugu!**

JAXONE AGIRREZABALA SEASKA AURRESKOLAKO HEZITZAILEA.

ZER
BERRI



- Noiztik dago martxan haurtzandegia?

Hogeita bat urte dira haurtzandegiak bere atea ireki zituela, eta aurten, aurrekola gisa funtzionatu du. Ulmeek, jan, lo eta zaintzeaz gain, hezitu egiten ditugu. Beraz, haurtzandegi bat baino aurrekola dela esatea egokiagoa da.

- Orain arte udal haurtzandegia izan al da?

Egoitza Diputazioarena da baina dirulaguntzak Billabonako Udalak ematen ditu. Aldaketa bakarra langileok elkarte bat osatu dugula da, baina funtzionamenduari dagokionez lehen bezala jarraituko dugu.

- Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Haurrei jana eta abar. emateaz gain, heziketa orokorra lantzen dugu beraiekin. Aurretik ezarritako planifikazioa jarraitzen dugu. Sikomotrizitatea, hizkuntza eta adimena lantzen dira. Horrezaz gain, afektibitatea eta taldeko ohitura eta baloreak zeintzuk diren erakusten zaie haurrei, eta garrantzitsuenak, euskaraz bizitzen erakusten zaicela da. Gurasoei berriz, etxetik kanpo lan egiteko aukera errazten diegu.

- Zenbaterik egiten duzue lan?

Sei langilek eta garbitzaileak egiten dugu lan. Langile bat udaleko funtzionaria da eta gainerako langileok elkarte bat osatu dugu. Hala ere, Billabonako Udalak dirulaguntzak ematen jarraitzen du. Dirulaguntza horiekin aurrekolak dituen gastuak ordaintzen dira. Billabonako gurasoek, dirulaguntza horiek direla eta, gutxiago ordaindu behar dute.

- Zenbat haur eta zein adinetakoak daude egun aurrekolan?

Berrogei haurrentzako tokia dago. Adinaren arabera hiru talde egiten ditugu: 0-1 urte, 1-2 urte eta 2-3 urte bitarteko taldeak egiten ditugu. Gauzak horrela, sei langile gara eta txanda ezberdinak izan arren, talde bakoitzak bere begiralea du. Horrezaz gain, talde berean haurren artean hilabete batzuren aldea izanez gero ezberdintasunak egon daitezkeenez, haur bakoitzari egokitutako programa dugu.

- Zein dira haurrak onartzeko helburuak?

Bi hilabete t'erditik aurrerako haurrak onartzen ditugu. Billabonako haurrez gain, Ernio-Beheko herrietako haurrak ere etor daitezke. Hori bai, ordaindu beharreko diru kopurua altuagoa izan daiteke, beren herriko udalaren dirulaguntzarik ez badute. Beraz, Zizurkil, Aduna edota Asteasukoko haurrak onartzen ditugu, baina beti ere Billabonakoek lehentasuna izaten dute.



Hona hemen berriro gure lehiaketa. Asmatu behar duzuen txokoa ezaguna da oso. Norbaitek bertsoak ere ateratu dizkio zuhaitz horri. Nahiz eta orain fruiturik ez izan, garai batean zuhaitz eder eta emankorra izan zen. Zizurkilgo paraje polit batean aurkitzen da eta ondo begiratu

gero, atzeko aldean aurkitzen den etxea eta plakak pista handia eman diezazuke. Beraz, animatu eta idatz ezazu!

Saria bikaina da oraingoan ere: **Billabonako Ogi-goxo okindegiak** "etxeko produktuez osatutako sorta" eskaini du oparizat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldirikaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia. 20.140 Andoain.**

Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

ogi berezi eta
artesanak
...
etxerainako
zerbitzua

OKINDEGIA, S.L.
Lizana-enea, 32 - Hizmendi auzoa.
20159-ASTEASU ☎ 681292 - 691896

OGI • GOXO



• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
• TEILAK-ZIGARRILOAK
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

IKASTAROAK

HAUR EKINTZAK

ZIZURKIL

Antzerkia, bertsolaritza, aerobic-a, pintura eta areto dantzak.

ZIZURKIL-BILLABONA

Plastika eta euskal dantzak.

BILLABONA

Baleta, musika eskola, judoa eta xake-jokua.

GAZTE ETA HELDUEN EKINTZAK

BILLABONA-ZIZURKIL

Eskulanak: Lore ihartuak, egur-margotua eta Decoupagea.

Gimnasia eta aerobic-a.

ZIZURKIL

Yoga

BILLABONA

Zeramika, argazkilaritza, taila-egurra, bideoa, makramea eta saskigintza.

Oharra: Ikasturteak urriaren lehenetik hasiko dira eta ekainaren erdira arte iraungo dute. Matrikula opea: Irailaren 13tik 26era arte. Informazio gehiago Billabonako 69 16 55 zenbakira eta Zizurkilgo 69 35 51 zenbakira deituta.

EUSKARA IKASTAROAK

ANDOAIN

AEK euskaltegiak EGA, alfabetatze eta euskalduntze ikastaroak antolatu ditu ikasturte berri-rako Informazio gehiago 591704 telefonora deituta.

KONTZERTUAK

ANDOAIN

Irailak 13: Gari abeslariaren musika emanaldia Nafarroa plazako kioskoan, gaueko 23:00etan.

Irailak 20: Erreka musika taldearen emanaldia Nafarroa plazako kioskoan, gaueko 22:30etan.

IBILALDIAK

ANDOAIN

Irailak 13-14: Andoaingo Euskalduna Mendigoizale taldeak antolatuta "Pic Mone" mendira ibilaldia.

BILLABONA

Irailak 13-14: Billabonako Aizkardi Mendizale elkarteak antolatuta Europako mendi-tontorrera ibilaldia.


Irailak 21: Andoaingo Euskalduna Mendigoizale taldeak eta Billabonako Aizkardi Mendizale elkarteak antolatuta Besaidera irteera. Oroitzapenaren eguna ospatuko da.

MENDI ASTEA

ASTEASU

Irailak 22-28: Astelehenetik ostiralera emanaldiak Kultur Etxean, arratsaldeko 20:00tan. Astebukaeran berri-z, mendi irteera.

KOMIKIA





Zarate bidea
Tel.: 693983
20159 Zizurkil

Abeletxe

aterpea



- LARUNBATA GAUEAN MUSIKA ZUZENEAN
- ASTEBURUETAN DASTAKETA MENUAK 2.500 PTATAN.
- AUKERA ZABALA JAKIETAN.
- EGUNEKO MENUA 1.200 PTA. ASTEAN ZEHAR.
- GELA BIKOITZAK
- LITERAK

IRAILAK 12 - Antzerkia

- «MOFA ETA BEFA» HUMOREZKO ANTZERKIA

IRAILAK 20-21

- MENDIKO BIZIKLETEN MEKANIKA IKASTAROA

KONFIDANTZA.




Egunetik egunera, hobetzen ari gara.



KIDEGASEKO BEZEROEN
ARRETARAKO ZERBITZUA

900 121 775

GASA INSTALATZEAZ
GAIN AHOLKU ETA
GOMENDIOAK ERE
EMATEN DIZKIZUGU



EDOZEIN ARRAZOIA DELA
ETA GASAREN HORNIDURA
ETEN EGINGO BALITZ, ITXI
ITZAZU GILTZA GUZTIAK



Kidegas, S.L.

GASA ETA BEROGINTZA
ZURE GAS AHOLKULARIAK

**EUSKARA
IKASTEKO
PRIMERAKO
DIRULAGUNTZAK**

ANDOAINEN

**Euskaraz suelto-suelto hitz egiten eta
txukun-txukun irakurri eta idazten ikasteko
dirulaguntza bikainak emango ditu
Andoaingo Udalak**

- Egunean 2, 3, 4 edo 5 orduko ikastaroak.
- EGA eta Alfabetatzea.
- Merkatarietzako euskara teknikoa.
- Andoaingo euskaltegietan eta kanpokoetan.
- Dirulaguntzak hartuko dituztenak:
 - langabetuak,
 - urtean 1,2 milioi baino gutxiago irabazten dutenak,
 - 12 urtez azpiko seme-alabak dituzten gurasoak,
 - merkatariak.

*Etzazu galdu aukera hau!
Zoz euskaltegira!*

**INFORMAZIO GEHIA-
GO UDALETXEKO EUSKARA
ZERBITZUAN ETA HERRIKO
EUSKALTEGIETAN**



Andoaingo Udala
Euskararen Normalkuntzarako Lansaila